

Harresirik gabeko LURRALDEAK

Mikelazulo Kultur Elkartek sortu zenetik egin izan ditu proiektuak etorkinekin, migranteekin, beste kulturetako jendearekin. Eta horietako bat, HERRIEN ASTEA jaialdia da, 20 urtez urtero egin dena azaroan. Beste kulturei ahotsa eman eta euren egoerak salatzeke baliabide zoragarria eta xumea. Jarrera horren bestelako adierazpenak dira: Senegalenera eta Ecuadorrera eginiko bidaiak, Bizitzaren pintzelkadak liburuxkak eta Erretereriako Hizkuntzen Mapa egitasmoaren lehen entrega, poesi unetan arabierari, wolofferi... eman diegun lekua.

2015ko Herrien Astea *"Lampedusako mosaikoa"* artelana egin genuen Oreretako zumardian, mediterraneoan hildako migranteen oroimenez. Hau izan zen gure proiektuaren abiapuntua.

PROIEKTUA:

Gure helburu nagusia, herria SENSIBILIZATZEA da. Globalizazioaren garaiko migrazioaren fenomeno berria azalpenak behar ditu. Fenomeno hori ezin da esplikatuz Afrikako, Amerikako, Ekialde Hurbileko eta urruneko lurren espekulaziorik gabe, sortzen diren gerrarik gabe eta aldaketa klimatikoaren ondorioak gabe. Guzti hori dago migrazio fenomenoaren oinarrian. Zergatik Europak gotortzen ditu bere mugak Melillan, Mediterraneoan, Europako ekialdeko estatuetan, Calaisen? Zergatik paperik gabekoentzat duen erantzun bakarra da CIESak eraikitzea gero deportazioari ekiteko? Zergatik du islamofobiak Europan horrenbesteko pisua? Nola egin aurre horri? Gauza guzti hauei buruz gogoeta, eztabaida, kriterio propioak lantzea nahi dugu.

Sentsibilizazio kanpaina, Lampedusara joan aurretik izango da, Lampedusara bidaiari kanpainaren parte da eta handik itzultakoan, han ikasitakoarekin jarraituko dugu sentsibilizazio kanpaina aurtengo Herrien Astea, azaroa arte. Sentsibilizazio lan hau burutzeko, eta kanpaina horren erdian lekua hartuko duen Lampedusara Bidaiari antolatzeke, lantalde bat osatu dugu. Hasi gara lanean eta udan Lampedusara goaz.

Kanpainari hasiera eman genion Apirilaren 18an, Lampedusako Mosaikoaren aurrean egin zen elkarretaratzearekin. Urte bete lehenago, 2015ean, apirilaren 18an, 700 etorkin urazpiratuak eta hilak suertatu ziren Europatik (Lampedusatik) 100 bat kilometrotara. Elkarretarate horretara deitu zuten Orereta/Erretereria eta inguruko herrietako 50etatik gora elkartek.

Bidaiaren intentzioa, berriz, hau da: Han bertan, Lampedusan dauden lagunei (Askavusa elkarte solidarioa) babesa eman nahi diegu, izugarrizko lana egiten ari baitira. Eta bestetik, hango egoera ikustea, entzutea eta bertako elkarte solidarioarekin eta etorkinekin izandako harremanen bidez lekukotasunak, ideiak, ikuspegiak jaso eta geure barnea aberastu. Horixe dena izango da gero, itzultakoan, transmitituko duguna. Hitz batez Lampedusara goaz ikerketa lan bat egitera: harresia sentitu, migrazioa ikusi, beldurrak dastatu, istorioak entzun...

Kanpaina aurrera ateratzeko baliabideak lortzeko, laguntzen gaituzten disziplina desberdinetako artistek (ipuin kontalariak, antzerkilariak, koru bat, kaleko animatzaileak, poetak...) emanaldiak emateko prest daude gure **kanpainaren autofinantziazio modura**, Oiarzun, Pasai, Lezo eta Oreretako zenbait espaziotan egingo direnak. Herriari gure proiektua ezagutarazi nahi diogu.

Ondoren duzute idatzi dugun AGIRIA, sentsibilizazio kanpaina guzti honen zentzua adieraziz.

MANIFESTU TXIKIA

Lampedusa uhartea sinbolo bat da, Europako latsaizunaren sinboloa; baina aldi berean, baita bizitza duinaren aldeko ahaleginen sinboloa ere. Melillako harresia, Mediterraneo pateren infernua, Europako mugetako milaka errefuxiatuak, CIES-ak, Frontexa, arrazakeria... Lampedusa Mediterraneo erdian dagoen uhartea da eta aipatu egoeraren sinboloa.

Milioika pertsonak bezala, guk ere esaten dugu: hau onartezina da! Indignitate hutsa da! Eta zera diogu: migrazioa fenomeno ez-naturala bihurtu da. Bizi ditugun migrazio masiboak eta migrazio horien egoerak: ihes egin beharra, bidaiaren arriskuak, Europako heldu lurretan altxatu diren harresiak... ez dira naturalak; eta ezagutzen ditugu horren erantzunkizuna dutenak. Afrikan eta Ekialdean gosea ereiten duten multinazionalak, NATO bezala gerrak antolatzen dituzten erakunde nahiz gobernuak eta batez ere Europako Komisioaren politikak.

Sumindura hori zurrizko mezu faltsuak, kutsagarriak eta hipokritak hedatzen dira, hiltzaile horien eskuetan dagoen sistemaren bidez: zein zinea, telebista, informatiboak, tertuliak, egunkariak, legeak, edota ikuskizunak. Ez dira ez herri ezta herritar atzeratuak, munduko boteretsuenek miseriara kondenatu dituzten arren. Ez dira ez herri ezta herritar kultura eta hizkuntzarik gabeak, nahiz eta haien ahotsa ixildua izan den. Izan ere, arrazakeria eta xenofobiak sortutako nagusitasuna eta harrokeria minbizia da.

Bizitzen ari garenaren aurrean suminduak gaudelako... Gure gain dauden gobernuen hipokresia jasan ezin dugulako... Gure inkoherentziak eta konplizitateak agerian jarri nahi ditugu: ez dugu ezikusiarena egingo, ez baitugu gure erosotasuna zaindu nahi milioika etorkinen sufrimenduei bizkar emanez, eta ez dugu inola ere esango gure pribilegioak eskubideak direnik. Ez gara itsutuko etorkinen arazoa aipatuz, hemen dagoen arazoa ez direlako haiek, kapitala pilatzea ez besterik nahi dutenak baino. Hauek dira benetako arazoa; eta ez dugu onartuko zapalduen arteko konfrontazioa sortzea, hori baita handi horien jokaera, biktima denari, errudun izatearen estigma ezartzea.

Egin genuen Lampedusaren Mosaikoa; harri-teselez eginga, harri bizia izatea nahi genuelako. Asmo eta bide honetan, beste urrats bat egin nahi dugu: bagoaz Lampedusara. Hemengo elkartasuna gurekin eraman nahi dugu eta hango lagunekin batera duintasun-eza salatu, han eta hemen etorkin daudenekin, denok elkarrekin, gure esku dagoen etorkizun askeagoa, berdintasunezkoa eta lagun girokoa eraikitzen ahalegindu.

